



### *Errotariaren ondasunak*

Errotari batek hiru seme-alaba zituen. Hirurak elkarrekin zirelarik, aita-amak hil zitzaizkien. Ondasunak hiruren artean banatu zituzten, eta zaharrenak errota hartu zuen, bigarrenak mandoa, eta hirugarrenak berriz, katua.

Hirugarren hori biziki triste zegoen, katuak behin honela esan zion:

–Zer dun horren triste?

–Ai, ni beste ondasunik gabe, hirekin nola biziko naun?

–Ez haiz hi ez, tristeena izanen. Egizkidan bota pare bat.

Errotariaren alabak egin zion bota parea.

Oihan baten erdian jauregi eder bat zegoen eta jauregi hartako jaunak gizotso fama zuen. Katua jaun harengana joan zen eta esan zion:

–Gizotso haizela esaten ditek.

–Bada, hala dun.

–Gizotsoek nahi duten irudian jartzen omen dituk.

–Bai, hala dun.

–Ez diat bada sinesten.

Eta gizotsoa, barrez, lehoi bihurtu zen. Katua izutu egin zen eta berriz esan:

–Ez duala orain sagu itxura hartzen.

–Ja-ja. Ez, zera!

Orduan katuak gainera jauzi eginik ito egin zuen.

Eta gero, bere nagusia jauregira ekarri eta han bizi izan ziren elkarrekin.

*Herrikoia, Itziar Zubizarretak moldatua*

**Kontatu, irakurri eta entzun**